



EBAZPENA, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Euskadiko toki-korporazioetan aldi baterako zerbitzua emateko Udaltzaingoko laguntzaileen poltsa sortzeko prozeduran (2021eko uztailaren 19ko Ebazpenaren bidez egin zen deialdia), poltsa hori 2026ko urtarrilaren 1era arte luzatzen duena.

2021eko uztailaren 19ko Ebazpenaren bidez, udaltzaingo-laguntzaileen poltsa bat sortzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egin zen, euskal toki-korporazioetan aldi baterako zerbitzua emateko.

Hamaikagarren oinarrian poltsak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera bi urteko iraupena izango zuela aurreikusita zegoen, eta baita poltsa hori aipatutako epea igaro ondoren iraungiko zela ere.

Konstituzioaren 103. artikulua, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen eta Administrazio Publikoaren jarduketan eraginkortasun-printzipioaren alde egiten duten gainerako legeria aplikagarriaren arabera,

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- AVPEko zuzendari nagusiaren 2021eko uztailaren 19ko Ebazpenaren ondoriozko udaltzaingo-laguntzaileen poltsa 2026ko urtarrilaren 1era arte luzatzea.

BIGARRENA.- Ebazpen hau Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratzea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, zuzenean aurkatu ahal izango dute, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Azken kasu horretan,

RESOLUCIÓN del Director General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, por la que en el procedimiento para la creación de una bolsa de Auxiliares de Policía Local para prestar servicio de forma temporal en las Corporaciones Locales Vascas convocado por Resolución de 19 de julio de 2021, se prorroga dicha bolsa hasta el 1 de enero de 2026.

Mediante Resolución de 19 de julio de 2021, se convocó procedimiento de selección para la creación de una bolsa de Auxiliares de Policía Local para prestar servicio de forma temporal en las Corporaciones Locales Vascas.

En la Base undécima, se preveía que la duración de la bolsa resultante tendría una duración de dos años desde el 1 de enero de 2022, extinguiéndose dicha bolsa una vez transcurrido el citado plazo.

En función del artículo 103 de la Constitución, la Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco y demás legislación aplicable que abogan por el principio de eficacia en la actuación de la Administración Pública,

RESUELVO

PRIMERO.- Prorrogar la bolsa de Auxiliares de Policía Local resultante de la Resolución del Director General de la AVPE de 19 de julio de 2021 hasta el 1 de enero de 2026.

SEGUNDO.- Publicar la presente Resolución en el Tablón de Anuncios y en la página web de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

Contra la presente Resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer Recurso Potestativo de Reposición ante el Director General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación, o bien podrán impugnarla directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a su publicación. En este último caso,



administrazioarekiko auzien epaitegien lurralde-
eskumeneko arauak errespetatu beharko dira,
Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari
buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14.
artikulan jasotakoak.

deberán respetarse las reglas de competencia
territorial de los Juzgados de lo contencioso-
administrativo, contenidas en el artículo 14 de la
Ley 29/1998, de 13 de julio, de la jurisdicción
contencioso administrativa.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusia
Director General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias